

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harreman estua sortzea da gure helburu nagusietako bat, bezero berriak erakartzeko eta lehendik ditugunak mantendu eta gure irabaziak handitzeko. Hori dela eta bezeroekin dugun komunikazioa hobetzeko eta bezero berriak erakartzeko zenbait baliabide erabiliko ditugu.

Lehenik eta behin, uste dugu gure gizartearen errealitaterako komenigarriena den komunikazio bidea sare sozialak direla, bereziki gazteak erakartzea bilatzen dugunean. Gure helburua ahalik eta sare sozial gehienetan gure zerbitzuen inguruko informazioa partekatzea da, honela gure bezeroek, zein ezagutu nahi gaituen pertsona orok informazioa erraz eskuratzeko aukera izango du. Horrez gain, komunikabide hauek, bezeroei enpresako berriak jakinarazteko ere erabiliko genituzke, hala nola, ordutegia aldatzen badugu, eskaintza berri bat egiten badugu, klase berezi edo ez-ohiko bat baldin badago...

Ilido beretik, web gune bat martxan jartzea aproposa iruditzen zaigu, helburua betetze aldera. Bertan beharrezkoa den informazio guztia eskainiko dugu, behar edo nahi duenarentzat, guztiok izango dutelako bertan sartzeko aukera. Gurekin kontaktuan jartzeko ona izango litzateke eta bertan izen emateko aukera izango lukete.

Laburbilduz, bezeroek guretzat garrantzi handia dute, noski, eta gure eskuan dagoen guztia egingo dugu beraien beharretara egokitutako zerbitzu hau ahalik eta gehien zabaltzeko, ahalik eta jende gehieni iristeko.